# ERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1997, apirilak 30


# rukurutzetako erromeria

## Ohitura zaharra berreskuratuz







Fiat Marea zure esku 2.396.000 pta.tik aurrera.

Diesel bertsioetan, %7,5eko finantziazioa.

75, 100 eta 124 CVko Turbo Diesel motoreak.

FIAT AUTOBEREZI Antigua, 10 Antzuola Alfa Romeo




OPTICOS ASOCIADOSek

# PACK GAZTE

BERRIA ESKAINTZEN DIZU

6 hilabeterako
erabili eta
botatzeko
UKIPEN lenteak.

500 mililitroko RENU
SOLUZIO BAKARREKO
BI POTE.

LENTILLENTZAKO KUTXATXOA.






*17.000 PTA bakarrik*

*eta gainera*
*walkman*
*bat opari!*

BAUSCH & LOMB

(1997-VI-30 arte da baliagarria eskeintza hau)

CIONE
Optika taldea

P. MANSO OPTIKA
Irizar Pasealekua, 2 Tf. 76 27 86

ERRIGARA

OTALDE JAUREGIA
O Bergara
03 97 • Faxa: 76 08 19

aratzailea:
UN Elkartea.
daria:
Azkarate
akzioa:
do Mendibil
Elkoroberezibar
tazioa:
urbe
izitatea:
a Romero
idetzak:
Elortza
uen zuzenketak:
an Plazaola
Laskurain
Labaien
akzio kontseilua:
Elortza
l Angel Elkoroberezibar
Labaien
ikiak:
Rodriguez
Ortega & Jon Alvarez
Ugalde
Azkarate
eko argazkia:
xo elkartea
keta:
angorri taldea
da:
ale.
imategia:
Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)
yright:
RIGARA
e gordailua:
/91
N:
-6599

RRIGARAk ez du bere gain
en aldizkarian adierazitako
en eta iritzien erantzunkizunik.

ldizkari honek Bergarako
alaren laguntza jaso du

Aldizkari honek
uzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko
Jaurlaritzaren Kultura
ailaren laguntza jaso du

## Z E B E R R I D A ?

# AINHOA ARBELAITZ

## *Xipizaro Ludotekakoa*



**- Udalekuetarako deia egin duzue dagoeneko.**

- Bai, bertan parte hartu nahi dutenentzat izenematea zabalik izango da maiatzaren 5etik 16ra bitartean, Seminarioko lokalean edo 76 23 76 telefonoan. Aurten, iaz bezala, haurreskolako lehen mailatik OHOko 5. mailara bitartekoentzat udaleku irekiak antolatuko ditugu uztailaren 1etik 30era. Bestalde, 6. mailan eta DBHko lehen eta 2. mailan ari direnei zuzenduta, udaleku irekiak eta itxiak antolatuko dira. Azken hauek, uztailaren 14tik 30era bitartean, Bergaran astebete eta hurrengoa Urdirozen igarotzeko aukera izango dute.

**- Iaz zenbat haurrek hartu zuten parte?**

- Iaz 344 neska-mutiko izan genituen eta aurten, hasiera batean, 300 plaza izango dira, 260 udaleku irekietan eta beste 40 plaza 5. mailatik gorakoentzat. Lanean 30 begirale eta bi arduradun arituko gara eta begiraleak aukeratzeko froga maiatzaren 10ean egingo dugu.

**Zenbat begirale ibiliko zarete lanean?**

***"Hiru urtetik 14 urtera bitartekoentzat udaleku ireki eta itxiak antolatuko ditugu"***

## I T U R R I O N E T I K

### Bergarako jaietan Bideberrin sei txozna jartzeko eskaria

Zortzi txozna jartzeko lekua bazegoen ere, Pazkuetan, Bideberrin, sei txozna jartzeko eskaerak jaso dira Udaletxean. Atzo martitzena egin zen bakoitzak izango duen lekuaren zozketa. Erreka aldera, Infernukuatik hasita, Aranzabal Lagunartea, Euskal Herrian Euskaraz eta Aranzadi Ikastolako BBB 2. mailako ikasleen txoznak jarriko dira eta beste aldean, berriz, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Ipintza Institutua eta AEK euskaltegiarenak.

Txoznak maiatzaren 16tik 20ra bitartean izango dira zabalik eta maiatzaren 21erako kendu beharko dira.

## E S A N D U T E

"Nik ametsetan bezala ikusi dut Ezkiogako Ama Birjina, eta neu harrituta, entenditu ezinean. Gero bidenteak esan zidan: *ez zara gogoratzen Ama Birjina zuregana joan zenean, eta nola hartu zenuen?* Baina sentitu bai. Nik gauzak eskatu eta eskatu bezalaxe eman. Eta poztasun bat sentitu, errezatzen hasten naizenean, berotasun bat bizkarrean! Guk sentitzen dugu grazia asko, ze badakar askotan sekulako perfumea, usain bat ederra! eta horrelako gogo bat, horrelako plazerra, gozamena esplikatu ezin dena nola sentitzen den. Guretako, hileroko bigarren igandean Anduagan Ezkioagako Ama Birjinaren sinesdunak biltzen garenean, asteburutik ederrenetakoa izaten da"

**BIXENTA LARRAÑAGA**
Baserritarra
EUSKALDUNON EGUNKARIA



**MICHAEL COLLINS**
Eguakitza: 22:30
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



**LOS DEMONIOS DE LA NOCHE**
Eguena (1): 17:00, 19:30, 22:15.



**KANSAS CITY**
Eguena (8): 17:00, 19:30, 22:15.

## Zinea

▼▼ **Neil Jordan** zuzendariaren (*Juego de lagrimas*) azken filmeak sari nagusia eraman zuen Veneziako jaialdian eta **Liam Neeson** aktorearen (*La lista de Shindler*) lana ere saritua izan zen. **Michael Collins** (**Neeson**) Irlandako errepublikarren mende honetako liderretako bat izan genuen eta filme honetan bere borroka azaltzen zaigu. **Aidan Quinn**, **Julia Roberts** eta **Stephen Rea**rekin.

▼▼ Benetako gertakizunetan oinarrituta, **Stephen Hopkins**en filme honetan **Michael Douglas** eta **Val Kilmer** dira protagonista nagusiak. 1896an gobernu britaniarrak Afrikan trenbidea eraikitzeko agindua eman zion **Patterson** jeneralari (**Val Kilmer**) eta honek **Remington** (**Douglas**) ehiztariaren ezinbesteko laguntza izan zuen...

▼▼ **Robert Altman** zuzendariak (*Vidas cruzadas*) 1934ko Estatu Batuetan girotu du bere azken filmea, kritikaren oniritzia jasoz. Kansas hirian ere nabaria da depresio ekonomikoaren eragina eta, hauteskunde bezperatan, botoak lortzeko kanpaina inoiz baino gogorragoa da. Aldi berean, *Hey-Hey Club*ean jazz musikarien arteko lehia ematen ari da...

## Deiak

▼ **Margoak.** Camino Mugerza margolariaren lanak Nahikarin.

▼ **Labegaraietako jaiak.** Ostenean, 11:30etan Meza Nagusia, jarraian Jubilatuetako abesbatzaren emanaldia eta 12:30etan bertsolari eta dantzariak. Arratsaldez, 4retan plater tiraketa eta lau t´erdietan txirrindulari lasterketa eta haurrentzako jokoak. Ostiralean, 12etan marrazki lehiaketa eta 4retan patata tortilena. Zapatuan, auzo afaria.

▼ **Kontzertua.** Oskorri, Kukubiltxo eta Kepa Junkera maiatzaren 9an Frontoian, Ipintza institutuak antolatuta. Sarrerak ohiko tokietan.

## Ogia

▼ **Eguena 1:** Konde.
▼ **Domeka 4:** Mizpildi.

## FARMAZIAK

▼ **Eguastena 30:** Mozos.
▼ **Eguena 1:** Camacho.
▼ **Eguakitza 2:** Puy.
▼ **Zapatua 3:** Guallar.
▼ **Domeka 4:** Guallar.
▼ **Astelehena 5:** Estella.
▼ **Martitzena 6:** Mozos.
▼ **Eguaztena 7:** Camacho.
▼ **Eguena 8:** Puy.

MUJIKA FERRETERIA
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA
Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

OILAGORRA
TABERNA
Barrenkale, 21 BERGARA

# Irukurutzeta:
## erromeria domekan

**Bigarren** urtez jarraian, Irukurutzetako erromeria izango da maiatzeko lehendabiziko domekan. Soraluzeko Atseden-Txaboleta elkarteak, Osintxuko Txurrumilok eta Kapirixo elkarteak antolatuta, igandean, goizeko 9etan, Pago bedeinkatura egiten den ibilaldiari hasiera emango zaio Soraluzeko zubitik. Ondoren, goizeko 11etan, Irukurutzetatik Karakate aldera dagoen Pagobedeinkatuan meza izango da eta meza ostean Kapirixoko kideek inguru horretako tumulo eta trikuharrietan egindako garbiketa lanak azalduko dizkiete bertaratuei. Goizeko 11:30etan, berriz, salda, txorizoa eta ardoa banatuko dira eta Iosu eta Iokin trikitilariek alaitutako erromeria izango da.


Iaz jende ugari elkartu zen Irukurutzetako erromerian.

Eguerdiko 12:30etan Irukurutzetara abiatu eta bertan Osintxuko trikitilariekin, bazkal aurretik, bester erromeria bat egongo da, ordubietan bazkaria (norberak etxetik eramatea eskatzen da) eta laurak inguruan agurraren erromeria, oraingo honetan Soraluzeko soinujoleekin. Azkenik, arratsaldeko 6ak aldera, jeitsiera hasiko da.

Ohitura zahar bat berreskuratzeko asmoz, Kapirixok iaz ekin zion Irukurutzetako erromeria antolatzeari. Orain 80 bat urteko ohitura omen da Irukurutzetako erromeriarena eta orduan maiatzaren 1ean egiten zen. Joan zen urteko erromeriak uste baino arrakasta handiagoa izan zuen. Pili Azkarate Kapirixoko kideak azaltzen digunez, *"ez genuen espero horrenbeste jendebiltzea eta horrek aurrera jarraitzeko animatu gintuen, dena primeran irten zen. Aurten ere, Azkoiti, Elgoibar, Soraluze edo Bergarako jendea etortzeko itxaropena daukagu".*

**Zeramika lanak**

Simon Arrieta zeramika taldearen lanak gaurtik maiatzaren 11era bitartean izango dira ikusgai Kultur Etxeko erakustaretoan. Erakusketan German Amurrio, Ainhoa Bollar, Eneida Larrañaga, Martin eta Aintzane Linazisoro, Nerea Madariaga, Maria Jesus Manzisidor, Esther Ortiz de Zarate, Olga Otxoa, Marivi Peña, Jabier Ugalde eta Xabier Zabalaren lanak ikusi ahal izango dira, astebarruan 6etatik 9etara eta, astebukaeretan, 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara.

Bolintx0
OKINDEGIA
domeketan ere zabalik
Zurradero, 2 behea Telefonoa 76.01.26

Goierri
AUTOGIDARIEN ESKOLA
Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

## Maiatzaren lehena

Maiatzaren lehena, solidaritate eta erreibindikazio eguna, munduko langileek hartu zuten bi kontzeptu hauek langile klase kontzientziaren zutabe nagusiak izan behar dutelako. Gure kasuan, euskal langileonean, solidaritatea, neoliberalismo gogor, zikin eta krudel honen erasopean, derrigorrez berreskuratu behar dugu, ze Euskal Herriaren Eraketa Nazionalean ezinbestekoa dugu langileon artean solidaritate eta elkartasuna zabaltzea eta kontzientzia honen arabera jokatzea gure iharduera guztietan.

Arestian aipatzen dugun bezala, neoliberalismo zikin, gogor eta krudel honen erasopean bizi gara, azken erasoa, Espainiako patronalak eta menpekotasun zentralistako sindikatuek, UGT eta CCOO, sinatzen duten Lan erreforma izan delarik.

Sindikatu saldu hauek sinatu duten akordioak ez du prekarietatea galerazten, zabor kontratuak mantentzen ditu, kontratu mugagabe berria arautzen da. Azken kontratu honen ezaugarri nagusia, legez kontrako bidezko despidoaren ondoriozko indemnizazioa, urteko 33 egun eta 24 hilabeteko iraupenekoa, ezartzean datza. Lehen, berriz, 45 egunekoa zen.

Langile Estatutuko 52-c artikuluaren aldaketari esker, despido objetiboa erraztu eta merketu egiten du. Artikulu honek despido guztiak bidezko izatea eragiten du, urteko 20 eguneko indemnizazioarekin.

Lan banaketari, lanaldi murrizketari, ordu extrei, ETT-ei buruz erretorika hutsa besterik ez. Inongo konpromezurik ez patronalaren aldetik.

Azkenik, negoziazio kolektiboari buruzko akordioari zentralismo espainiar itogarria dario, euskal esparruan negoziatutako hitzarmenen edukia zapuztea du xedea, euskal sindikatuek helburu duten Lan harremanetarako Euskal Esparrua eragotzi nahian. Akordioak halaber, Langileen Estatutoko 84. artikuluaren aldaketa ekarriko duen oinarriak jartzen ditu.

Ikusten duzun bezala, neurri hauek langileen aurka beste kolpe gogor bat suposatzen dute. Hala ere, ez dugu etsi behar, gogor jarraitu behar dugu eraso bortitz hauen aurka, Euskal Herriaren eraketa nazionalaren barruan.

Borroka horretan, Maiatzaren lehenak, lehen aipaturiko solidaritatea langileon artean zabaltzeko balio behar digu eta baita ere, jai giroa gainditzuz, gaur egun euskal langileriak dituen arazoak kaleratzeko, hau da Maiatzaren lehen erreibindikatiboa aldarrikatzeko.

Beraz, Maiatzaren lehenaren inguruan eratuko diren ekintzetan parte hartzeko eskatzea besterik ez zaigu geratzen, lehen aipaturiko solidaritate eta erreibindikazioak egun horretan eta urte osoan uztartuz.

Gora Maiatzaren lehena. Gora Euskal Herriko langileria. Gora LAB.

DEBA GARAIKO LAB

## Labegaraieta jaietan

Joan den larunbatean, apirilak 26, denok itxaroten geunden kontzertua ospatu zen Labegaraieta auzoan. Aurtengo balantzea, ordea, aurreko urteetakoekiko ezberdina izan da:

a. Altos Hornos de Bergara enpresako egoitzako hainbat kristal apurtuta.

b. Papera eta kartoiaren birziklapenerako zenbait ontzi erreta Labegaraieta, Ozaeta eta Zubiaurre auzoetan.

c. Pintadak Labegaraietako etxe eta hormetan.

Eskerrikasko beren jokaera heroikoarekin hain ezagunak diren Labegaraietako jaiak bertan behera uztera behartu gaituzten pertsonei, zoritxarrez herrikoak. Arrazoi bat baino gehiago dira auzoetako jaiak desagertarazten dituztenak, baina aipaturikoa da nabarmenetako bat.

Mila esker, oraingoan bai, Altos Hornos de Bergara enpresari eta auzokide guztiei, izan duten pazientzia eta eskaini diguten laguntzagatik, beraiendako antolatzen baititugu jaiak eta beraiek gabe ez luketelako zentzurik izango.

LABEGARAIETAKO JAI BATZORDEA

## Tiiira biraka

BITTOR RODRIGUEZ



### Altos Hornosen txikizioak

Joan zen domeka goizaldean hainbat txikizio egin zituzten ezezagun batzuek Labegaraieta auzoan. Altos Hornos de Bergara enpresako egoitzako hainbat kristal apurtu eta pintadak egin zituzten Labegaraietako hainbat etxe eta hormatan. Bestalde, papera eta kartoiaren birziklapenerako zenbait ontzi erre egin zituzten Labegaraieta, Ozaeta eta Zubiaurren. Auzoko jai batzordeak adierazi du idatzi baten bitartez, era horretako ekintzek, etorkizunean Labegaraietako jaiak ez antolatzera behartzen dituztela. Jai batzordeak egun hauetarako prestatuta zituen ekitaldiak ez ditu suspenditu.

### Torunsan huelga

Torunsako enpresa komitekoek deituta, ordubeteko protestaldia egin zuten lantegi aurrean 20 bat langilek astelehenean. Langileek soldata igoera eta langile ebentualek eta sartzen diren berriek, besteek kobratzen duten adina irabaztea eskatzen dute.

**HILDAKOAK**

**Anselmo Domingo Mellado Campos**
Apirilak 25, 73 urte.

# Sindikatuak bakoitza bere aldetik Maiatzaren lehenean




Sindikatuak ez dira elkarrekin kalera irtengo Maiatzaren lehenean.

**Sindikatuek** ez dute deialdi bateraturik egin biharko Maiatzaren leheneko manifestazioetarako. Azken urteetan UGT eta CCOO, alde batetik, eta ELA eta LAB, bestetik, batera joan badira ere, aurten bakoitzak bere aldetik antolatu ditu. UGTk eta CCOOk enpresarioen elkartearekin sinatu berri duten Lan erreformak markatu du aurtengo Maiatzaren lehena. Estatu mailako sindikatuak akordioarekin pozik agertu badira ere, enpresarioei hitza betetzeko eskatuko diete langileen egunean. ELA eta LABek, berriz, ez dute Lan erreformako negoziazioetan parte hartu eta akordioa kritikatu egin dute.

### ELAk Bilbon eta LABek Arrasaten

ELAk Bilbon ospatuko du aurten Maiatzaren lehena. Goizeko 11:30etan manifestazioa egingo du Jesusen Bihotza plazatik irtenda eta ondoren bazkaria izango da Nazioarteko erakustazokan. Bergaratik autobusak antolatuko dira. Bergarako ELAko kide batek esan digunez, Bilboko manifestazioan Tavesa eta Algodonerako langileen ordezkaritza batek presentzia nabarmena izango du. ELAk aukeratu duen lema nagusia honako hau da: "Lan erreformak esplotazio gehiago ekarriko du. Guztientzat lan duina".

Deba Garaiko LABek, berriz, Arrasaten antolatu du manifestazioa eguerdiko 12etan Sebero Altubetik irtenda. Horrez gain, hainbat ekitaldi antolatu ditu egun hauetan. Lan erreformaren aurka eta aparteko orduen kontra protesta egiteko enkarteladak egin zituzten astelehenean Arrasaten eta Bergaran. Ordu estrak direla eta, *"Euskal Herriko sindikatuen arteko akordio bat egin, aparteko orduen kontrola bultzatu eta klausula bidez pakto eta hitzarmenetan ordu estrak kentzea sartzea"* proposatzen du LABek. Astelehenean, bestalde, Jose Luis Rezabalek, Idazkaritza Nazionaleko kideak, Lan erreformari buruzko hitzaldia eman zuen Kultur Etxean. "Langabezia eta esklusioaren aurka" izango da aurtengo Maiatzaren lehenean LABek erabiliko duen lema.

Bestalde, UGTk eta CCOOk hiriburu guztietan antolatuko dituzte manifestazioak. Gipuzkoako CCOOk Donostian egingo du goizeko 11:30etan Bulebarretik irtenda. Erabiliko duen lema "Eskubidedun lanpostuen alde" izango da.

LASAGABASTER
LASAGABASTER
ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.
Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tl. 79 27 27 / 79 13 55

## San Pankrazio

Datorren maiatzaren 12an, San Pankrazio eguna dela eta, Bedelkarrek, Bergarako dendari, ostalari eta zerbitzuen elkarteak, bere bezero eta lagunak zoriondu nahi ditu. Halaber, egun horretan elkarteko dendetako batean erosketak egiten dituztenek oparitxoren bat jasoko dutela jakinarazi du.

## Komiki lehiaketa

Aurten ere Komiki Lehiaketa antolatu dute Jarduneko Kultur Taldekoek. Lehiaketan, Euska Herri osoko 14 urtetik gorakoek har dezakete parte eta lanak euskaraz idatziak izan beharko dira. Adinaren arabera, hiru talde bereiztuko dira eta lanak ekainaren 6a baino lehen Masterrekara edo Gartzela Zaharrera bidali beharko dira.

## Liburutegia itxita

Maiatzaren leheneko zubia dela eta, Udal liburutegia itxita egongo da ostegunetik astelehenera bitartean.

## Herri bazkaria

Herriko hainbat kuadrilarekin batera aurten ere Herri bazkaria antolatuko du Jardunek Pazkuetako martitzenean, kuadrilen egunean. Txartelak aurki salgai jarriko dira herriko tabernetan.

## Langabezia eta pobrezia

Langabezia eta pobreziaren aurkako plataforma Bergaran sortzeko bilera izango da maiatzaren 8an, arratsaldeko 7etan, Kultur Etxean. Eusko Legebiltzarrean Lege Ekimen Herritar bat aurkezteko, 30.000 sinadura bildu nahi dira Euskal Autonomi Elkarte osoan.




Negozio berriak martxan jartzeko laguntzak jaso daitezke Ongizate Zerbitzuan.

# Negozio berriak martxan jartzeko laguntzak eskaintzen ditu Udalak

### *Aholkularitza zerbitzua eta 30.000 pezeta ematen dira*

Aurten aurkezten diren lan ekimenendako laguntza eskariak egiteko deialdia egin du Udaleko Enplegu eta Gizarte Ongizate Zerbitzuak. Enplegua, enpresa edota negoziotarako ideia berriak martxan jartzeko aholkularitza zerbitzua eta 30.000 pezetako beka eskaintzen dira. Arlo horretan martxan jar daitekeen ideiaren bat aurkezten duen edozeinek jaso dezake laguntza hori. Laguntza eskaintzeko orduan, hiru fase bereiztuko dira: lehenengo, ideiaren bideragarritasuna aztertuko da; ondoren, enpresa-plana definitu eta zehaztuko da eta, azkenik, orientabide egokia eskainiko zaio. Aholkularitzari dagokionez, bideragarritasuna duen ideia bakoitzari, gehienez, 40 orduko laguntza eskainiko zaio, lehenengo elkarrizketan aurreikusitakoaren arabera. Ideiak aurkezteko epea urte guztian zabalik izango da, aurtengo abenduaren 31ra arte.

Lan ekimenendako laguntzen programa 1994. urtean jarri zen martxan, aurretik "Arrisku Soldata" programaren barruan ematen ziren laguntzak bertan behera laga eta gero. Azken bi urteetan hamarren bat eskaera egin dira urteko. *"Ematen den laguntza ekonomikoa sinbolikoa bada ere, eskaintzen den aholkularitza zerbitzua oso baliagarria izaten da negozio edo enpresaren bat jarri nahi dutenentzat"* esan digu Marije Unamunok, Udaleko enplegu teknikariak.

Iaz aztertu ziren ideien artean, Barrenkaleko hotel txikia eta Boluko okindegia azpimarratu daitezke.

ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

GORBEA
Miguel Gimbert Hernan
AROZTEGIA / EBANISTERIA
Zokalo, ate, tarima eta armairuen kolokazioa eta era guztietako arotzeria-lanak
Orain ARETXABALETAN,
Basabe Polig. A-2-5 Tl/F 79 15 71

# Graffiti lehiaketa Pazkuetan herriko euskara taldeen eskutik

Jardunek, Euskal Herrian Euskarazek, AEK Akulu Euskaltegiak eta Udal Euskaltegiak Graffiti lehiaketa antolatu dute Pazkuetarako. Lehiaketan 14 urtetik gorako edozeinek har dezake parte eta gaia euskara izango da. Bozetoak maiatzaren 6a baino lehen aurkeztu beharko dira Jarduneko lokalean. Izena ematerakoan honako hauek aurkeztu beharko dira: DIN A-3 neurrian egindako bozetoa, egilearen izena jarri barik; egilearen datuak (izen-abizenak, adina, telefonoa, helbidea eta goitizena) sobre itxi batean sartuta, eta sobre horren azalean lanean jarri den goitizena bera jarriko da.

Aurkeztutako bozetoen artean, epai-mahaiak 10 onenak aukeratuko ditu eta hauek, Pazku ostiralean graffitiak egingo dituzte arratsaldeko 3:30etatik aurrera Irizar eta Kruz Gallastegiko oholetan. Graffitiak gehienez 2,5 metro x 3,5 metroko neurria izango du eta erabiliko den materiala (spraiak) antolatzaileek emango dute. Sariak, hurrengo egunean, zapatuan, Bideberriko rock kontzertua hasi aurretik banatuko dira. 30, 20 eta 10 mila pezetako sariak izango dira hiru onenentzat.

Graffiti lehiaketa lehenengo aldiz antolatu da Bergaran. Antolatzaileen asmoa Pazkuetako jaietan euskal giroa piztea da: *"harrapastaka ibili gara eta korrika eta presaka antolatu dugu lehiaketa. Euskararen inguruan lanean dihardugun lau talde elkartu gara eta graffiti lehiaketa antolatzea bururatu zaigu. Horrez gain, herriko tabernariei eskatu diegu jaietan, ordu batzuetan behintzat, euskal musika jartzeko. Datorren urterako gauzak patxadaz hartu eta jaietan euskarekin lotutako beste hainbat ekitaldi antolatzeko asmoa daukagu"*, esan digu Eba Alberdik, Jarduneko dinamizatzaileak.



Irizar eta Kruz Gallastegi kaleetako oholetan egingo dira graffitiak.

## Pegatina lehiaketa

131 esaldi aurkeztu dira Jardunek Pazkuetarako antolatu duen pegatina lehiaketara. Irabazlea Iker Egidazu 18 urteko bergararra izan da. Irabazleak 10.000 pezeta jasoko ditu eta esaldia jaixetan aterako den pegatinan ikusiko da.

## Bertso paper lehiaketa

Antzuolako Idolaz elkarteak VI. bertso paperen lehiaketa antolatu du, Antzuolan jaio edota bertan bizi direnentzako. Adinaren arabera, lau talde bereiztuko dira eta gaiak ere ezberdinak izango dira. Lanak Antzuolako Udaletxeko Euskara Zerbitzuan edo Udal liburutegian aurkeztu behar dira maiatza bukatu baino lehen.

## Gazte bat atxilotuta

19 urteko gazte bat atxilotu zuen Ertzantzak joan zen eguenean Bidekurutzetan. Oihulari Klown taldeak Pol-Polen eskaini zuen emanaldiaren ostean, gauerdi inguruan, Komenio kalean jende ugari zegoela ikusiz, ertzainak bertara hurbildu ziren eta identifikatzeko eskatu zieten bildutakoei, lekukoek adierazi dutenez, ez oso modu onean. Une horretan batenbatek iraindu egin omen zituen ertzainak eta hauek 19 urteko gazte bat atxilotu zuten. Ertzain batek pistola ere atera ei zuen. Gaztea komisaldegira eraman eta goizaldeko ordubiak aldera, kargu barik, aske laga zuten. Bestalde, ertzainek isuna jarri zieten Oihulari Klown taldekoei furgoneta espaloi gainean aparkatzeagatik eta barruan txoferrik ez zegoelako. Oihulari Klownekoak furgonetan trasteak kargatzen ari ziren ertzainek isuna jarri zietenean.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi ☎ 76 15 09

Bolillo eta Gantxillo ikastaroa
**Hasiera, maiatzaren 14an eta 15ean**
Asteazkenetan eta ostegunetan izango da, 15:00-17:00.
***Informazioa: Igarza eta Phildar, D. Irala kalea, 5***

# Udal Intsumisoen Elkarteko estatutuak onartu zituen Udalbatzak astelehenean

**Asteleheneko** Plenoan Euskadiko Udal Intsumisoen Elkarteko (EUDIMA) estatutuak onartu eta bertako ordezkaritzarako Juan Mari Garitano (EA), Mikel Eguren (HB), Aitor Aranzabal (HB) eta Jose Antonio Etxeberria (EA) zinegotziak (azken bi hauek ordezkoak) izendatzea onartu zen HB eta EAren aldeko botuekin; EAJ eta PSE-EE abstenitu egin ziren.



Ordezko zerbitzua betetzeko eragozleak onartzen dituzten instituzioekin ez kolaboratzea onartu zen.

HB eta EAko Udal taldeak osatzen dituzten bederatzi zinegotziek aurkeztutako zortzi puntutako mozioan zera jasotzen da, besteak beste: Kodigo penaleko intsumisioari buruzko atalak ez onartzea eta gaitzestea, eta enplegu publikoan ateratzen diren plazak betetzeko oinarrietan, Kodigo penaleko intsumisioari buruzko neurriak ez betearaztea; Bergarako Udal batarrak, epaituak izandako eta izango diren bergarar intsumiso guztiei elkartasuna adieraztea. Bestalde, Udal korporazioak Kodigo penalaren intsumisioarekiko atalari buruz duen ezadostasuna eta gai honen inguruan hartutako erabaki guztiak jakinaraztea, bai Gipuzkoako Entzutegi Penaleko epaile guztiei eta baita Gipuzkoako Entzutegiari berari ere; eta ondorioz, epaile ezberdinei bergarar intsumisoak zigortuak eta inhabilitatuak izan ez daitezen eskatzea. Azkenik, Ordezko Giza Zerbitzua betetzeko eragozleak onartzen dituzten instituzioekin (Gurutze Gorria...) ez kolaboratzea, intsumisoen aurkako epaiketen gastuak ordaintzea, eta edozein ejerzitori gure ez onartzea lurretan egotea, maniobrarik egitea edota bertatik pasatzea.

Mozioa onartu aurretik, Kodigo penalean intsumisioaren gainean dakarrenari buruz, eta bertan jasotakoa ez betetzeak ekar dezakeenari buruz landutako txostena irakurri zuen Kontxi Ugalde idazkariak.

Mozioa onartu eta gero, botoa azaltzeko txandan, Alvaro Esparzak (PSE-EE) ejerzitoa profesionalizatzeko PPk jarritako epea 1999ra aurreratzea, gartzela zigorra duten intsumisoentzako indultoa eskatzea, intsumisioari buruzko Kodigo penaleko atalak aldatzea eta Soldaduzkari eta Ordezko giza zerbitzuari buruz gizartean kontsentsoa bultzatzea eskatu zituen. Victoriano Gallastegik (EAJ), berriz, Udaletik bultzatutako intsumisioari buruzko kontuetarako EUDEL bazegoela eta EUDIMA bezalako elkarteak sortzeko beharrik ez zegoela esan zuen. Aitor Aranzabalek (HB) erantzun zion EUDELek ez duela orain arte gai honi buruzko ekimenik bultzatu eta Udal intsumisoen elkartean 50 herri daudela, eta horien artean EAJko alkatea dutenak ere badaudela esan zuen.

Iazko azaroan, Bergarako Udala EUDIMAn sartzea onartu zen eta astelehenean elkarte horretako estatutuak onartu ziren.

INFERNUKUA
TABERNA
Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
D. Iraola, 3 - Tlf. 761235
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

*Legedia*

# Lan erreforma



**IÑAKI MADARIAGA**
*(Abokatua)*

**- Zer ekarriko du Lan Erreformak?**

- Momentuz, Estatu mailako sindikatuak eta enpresarioen elkartearen arteko akordio bat besterik ez da baina laister lege bihurtuko da. Ekainerako indarrean egon daitekeela komentatzen da. Lan erreformak hiru atal jasotzen ditu: hainbat sektoretan ez zeuden ordenantzak batetik, erreformaren sindikatu sinatzaileek lan hitzarmenak nola negoziatuko dituzten bestetik eta, azkenik, lan kontratuak. Kontratuen mailan aldaketa ez da hain haundia izango.

**- Kontratuen atal horretan zeintzuk izango dira aldaketa nagusiak?**

- "Zabor" kontratua delakoa 16 urtetik 21 urtera bitartekoei egitea (orain arte 25 urtera artekoak sartzen ziren) eta gehienezko iraupena 2 urtera jeistea (orain 3 urte dira) proposatzen da. Baldintza ekonomikoak ere hobetuko lirateke.

Praktiketako kontratuan, berriz, ia ez dago aldaketarik eta kontratu ebentualen kasuan (urtean 6 hilabeteko iraupena dutenak), luzatzea nahi izatekotan, sindikatu eta enpresaren artean lan hitzarmenak sinatzea jasotzen da, baina iraupena mugatuz: 18 hilabetetan, gehiengo iraupena 13 hilabete t'erdikoa izango litzateke. Azkenik, jarduera berriei ekiteko kontratua desagertzea proposatzen da. Nobedade nagusia proposatzen den kontratu berria litzateke.

**- Zelako kontratua da hori?**

- Enplegua bultzatzeko kontratoa beti hiru urtera mugatua egon da eta orain, lana bultzatzeko, kontratu mugagabea proposatzen da. Kontrato honek baditu hainbat berezitasun: kontratatutako gazteak lanik gabe dauden 30 urte baino gutxiagoko gazteak edo 45 urtetik gorako langabetuak izan behar dira, elbarrituak ere sartzen dira hemen edo urtebete baino gehiago lanik gabe daudenak ere bai. Kontratu mota honetan despidoa ere merkatu egiten da.

Hau da, arrazoi objetiboengatik langilea kanporatua izanez gero, eta despidoa bidegabea deklaratzen bada, lan egin duen urte bakoitzeko, 33 eguneko soldata tokatzen zaio kanporatutako langileari (gehien jota 24 hileko soldata). Hauek izango lirateke, azken batean, proposatutako aldaketa nagusiak.

**- Zein izan da sindikatuek egin duten balorazioa?**

- Estatu mailako sindikatuak izan dira akordioa lortu dutenak eta hori oso nabarmena da, leku guztietan estatu mailako konbenioak aipatzen baitira. Parte hartu ez duten gainontzeko sindikatuek (abertzaleak tartean) kritikatu egin dute lan erreforma, batez ere baztertuak izan direlako. Dena den, oraindik ezin da jakin neurri hauekin guztiekin kontratu mugagabe gehiago egitea lortu ahal izango den, ez dakit hori nahikoa izango den enpresarioek kontratu horiek egiteko duten beldurra gainditzeko.

**"Lana bultzatzeko kontratoa hiru urtera mugatu da; orain, kontrato mugagabea proposatzen da"**



Sindikatu abertzaleek kritikatu egin dute lan erreforma.

**Usoa Pub**
☎ 76 38 57
Irala, 1



**LASA**
*Jatetxea*
OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29

# Pedro Jose Eguren

## Uhin motzeko irrati entzule beteranoa

**Pedro Jose Eguren uhin motzean emititzen duten mundu zabaleko emisoren entzulea dugu. Eguren 1979an hasi zen irratizaleen munduan. Gaur egun Estatuko uhin motzen irrati entzule beteranoetako bat dugu eta oraintsu Euskal Herriko delegazioaren presidente izendatu dute.**

Berak aipatzen digunez, *"kasualidadez hasi nintzen. Eguerdi batean irratia piztu eta Radio Netherland-en erdarazko emisioan uhin motzen emisoren Estatuko bi kluben helbideak eman zituzten. Beraiekin kontaktoan jarri, informazioa jasotzen hasi nintzen eta piskanaka-piskanaka gero eta gehiago sartu nintzen mundu honetan. Hemen ez dago oso zabalduta baina Ingalaterran, Alemanian edo Estatu Batuetan zaletu asko dago. Gipuzkoan 14 bat lagun izango gara, Euskal Herrian 30 inguru eta Estatuan, berriz, 1.600 bat".*

Bere etxeko gela batean bi irrati aparailu eta grabadora bat jarri ditu eta egunero ordubete inguru ematen du irratia entzuten. Guztira, 180 bat emisora hartzen ditu. *"Ez da aparteko aparatorik behar, edozeinek egin dezake bere etxean. Askotan, periodikotan azalduko diren notiziak egun bateko aurrerapenaz komentatzen diet lagunei..."* esaten du umorez. Berak azaltzen digunez, *"emisora guztiek euren nazioen ezaugarriak ematen dituzte uhin motzeko emisioetan, turismoa bultzatzea interesatzen zaie batipat eta horregatik hizkuntza askotan ematen dira, jende gehiagorengana heltzeko. Orain dela gutxira arte Mosku Irratiak euskaraz ere emititzen zuen".*



"Orain dela gutxira arte Mosku Irratiak euskaraz ere emititzen zuen".

Besteak beste, Errusiako Ahotsa (7.420 KHz frekuentzia), VOA (Voice of America) irratia (13.775 KHz) edo Txina Nazioarteko Irratiaren (6.933 KHz) gaztelera edo ingelesezko emisioak entzuten ditu noizean behin; *"albisteak entzuteaz gain, gauza berriak ikasteko aukera dago. BBCa (12.095 KHz) adibidez ingelesa ikasteko oso aproposa da; ordu puntutan, Big Ben erlojuaren kanpaien ostean, horrela hasten dira albisteak: This is London. BBC World Service. The News...; bestalde, antolatzen dituzten lehiaketetan parte hartzeko ohitura daukat".*

Elkarrizketa egiten ari ginen bitartean pakete bat heldu zitzaion Txinatik. Zabaldu eta Txina Irratiak antolatutako lehiaketan irabazitako mantel bat erakutsi zigun harro-harro; *"orain Errusiako Ahotsak antolatutako beste baterako Mosku hiriaren historiari buruzko kontsulta ugari egin behar izan ditut..."* Pedro Joseren arrebak gaineratzen duen moduan: *"idazten dioten denak hona etorriko balira, ez ziren Frontoian ere sartuko...".*

Emisorak hartzen dituela probatzeko bidaltzen dizkioten tarjetak dauzka irratiaren ondoko paretan, zintzilik: Radio Comercio (Quito), La voz del Cinaruco (Kolonbia), Radio Rebelde (Kuba), Radio Kanada, Radio Budapest, Radio Pekin eta bar luze bat.

Euskal irratigintzaren grabazioak ere baditu, euskal abertzaleek erbestetik emititzen zuten garaikoak: *"Hemen Euzkadi Irratia, euskal erresistentziako gudarien deia...".*

Irratizale amorratua, uhin motzeko emisoren etorkizuna nahiko ilun ikusten du Pedro Jose Egurenek; *"lehen guztiek uhin motzean emititzen zuten baina orain sateliteen eraginez denak pikutara joango ote diren beldur naiz, ez dakit zer gertatuko den...".*

**"Lehen guztiek uhin motzean emititzen zuten, baina sateliteen eraginez denak pikutara joango ote diren beldur naiz"**



Lauri eta Asier Mexikon, Guatemalan eta Belicen ibili dira. Argazkian, Asier Guatemala eta Belice arteko *ferryan*. Behean Lauri Karibean, Tulum-en

# Mexikon bizikletan

## Bi bergarar Ertamerikan bidaiari

**Asier Elorza eta Lauri Askargorta gazte bergararrak Ertamerikan izan dira hilabetez. Laurik eta Asierrek Mexiko, Guatemala eta Belice-ko lurraldetan bizikletan ibili dira, guztira 1.750 kilometro inguru egin dituztelarik. Nahiko nekatuta itzuli diren arren, biak ere oso pozik daude bizi izandako esperientziarekin. Ikusitako parajeak edo bertako biztanleen harrera beroa ez dituzte ez errez ahaztuko.**

Asier eta Lauri joan zen martxoaren 20an abiatu ziren Mexikora. Aste Santuan bidaia bat egiteko asmoa zeukan Asierrek; *"Atlantikoa zeharkatzeko gogoa neukan. Mexikon edo Estatu Batuetan bizikletan ibiltzeak erakartzen ninduen eta azkenean Lauriri komentatu eta Ertamerikara joatea erabaki genuen"*. Bidaia ajentziara joan eta bertan aukera ezberdinak aztertu ondoren, Mexiko, Guatemala eta Belice (lehengo Britaniar Hondurak) bisitatzea erabaki zuten. Mexikora joan-etorriko bidaia erosi eta martxoaren 20an Mexikoko hiriburura iritsi ziren. Laurik azaltzen digunez, *"arratsaldeko 6 t´erdietan iritsi ginen bertara baina oso hiri peligrosoa zela entzunda geunkan eta lehenbailehen handik aldegitea nahi genuen. Heldu eta taxista batek hiri kanpoaldera eraman gintuen"*.

Hilabete batez bizikletan ibiltzeak ekipaje arina eramatea eskatzen du. Ahalik eta pisu gutxien eramatearren, Laurik eta Asierrek honako ekipajea eraman zuten: jazteko eta bizikletan ibiltzeko erropa (bi joku bakoitzak), toalla bana, bainujantzia, lo egiteko sakoa eta kanpin bat, igloo bat. Jana



## "Ez genuen uste Mexiko hain aldapatsua zenik. Nahiko neketsua izan da, batez ere egiten zuen beroagatik" LAURI ASKARGORTA

gertatzeko tresnak eraman arren, ez zituzten apenas erabili. Kanpina ere oso gutxitan atera zuten, gehienetan hostal txikietan lo egiten baitzuten. Eta bizikletei dagokienez, errobera fineko mendiko bizikletak erabili zituzten.

Heldu eta hurrengo egunean, goizean goiz, lehen pedalkadei ekin zieten, hegoalderuntz. Asierren hitzetan, *"atlas baten gainean egindako planaren arabera, 23 egunetan ibiltzea espero genuen baina bertara heltzean konturatu ginen uste baino kilometro gehiago zirela. Guztia berrantolatu behar izan genuen eta zati batzuk autobusez egitea erabaki genuen, apirilaren 19an, bueltako abioia hartzeko, Cancunen egon behar ginelako"*. Orografiarekin ere sorpresa eraman zuten. Laurik esaten digunez, *"ez genuen uste Mexiko hain aldapatsua zenik. Egia esan, hasiera ez zen oso itxaropentsua izan, lehendabiziko egunean kriston pajara hartu nuen eta. Baina hortik aurrera ez genuen aparteko arazorik izan. Nahiko ondo ibili ginen eta bizikletekin ere zortea izan genuen; Asierrek lau pintxazo izan zituen baina ez genuen istripurik edo beste aberiarik izan. Hala ere, nahiko neketsua izan zen, batez ere egiten zuen beroagatik. Nolako tenperaturak? Hobe ez jakitea, nahiko izerdi bota genuen eta"*. Bueltan igarriko zituzten egindako esfortzuaren ondorioak, Laurik 6 kilo galdu baititu. Asier, lehengo pisuan mantentzen da.

Goizeko 6ak inguruan esnatzen ziren egunero eta bizikletak kargatu eta gosaldu ondoren, martxan jartzen ziren. Asierrek kontatzen digunez, *"normalean arratsaldeko 6ak arte ibiltzen ginen bizikletan, baina lasai eta parada askorekin. Guztira, 6 bat ordu igaroko genituen bizikleta gainean eta kilometroei dagokienez, egunetik egunera, kilometro kopurua oso aldakorra zen. Kilometro gehien egin genituen egunean 180 bat egin genituen eta beste behin 50 besterik ez. Joan baino lehen nahiko entrenatu genuen eta, bataz beste, 20 Km/orduko abiaduran ibiltzen ginen. Guztira, bizikletan, 1.750 Km. eta beste 1.000 autobusez egin ditugu"*.

Esan bezala, bidean aurkitzen zituzten hostal txikietan egiten zuten lo. Lauriren hitzetan, *"egun bakoitzean leku diferentean egin genuen lo eta denetarik zegoen, hostal batzuk nahiko ondo, beste batzuk ez hainbeste... Prezio aldetik ere nahiko merkeak ziren eta zertxobait deskantsatzeko obea primeran etortzen zitzaigun"*. Asierrek gaineratzen duen moduan, *"bentiladorea egotea obea egotea baino ziurragoa zen. Beroa sekulakoa zen"*. Bidean jaten zuten normalean; *"merkatuen inguruan taska moduko batzuk izaten direa eta bertan menu corrido de-*



Bi lagunek paraje zoragarriak ikusteko aukera izan dute. Argazki honetan Asier Montebello-ko Lakuan egindako atsedenaldi batean.



Karibearekin liluraturik bueltatu dira biak. Argazkian Tulumeko hondartza.

*guru hori topetaraino zegoen, turismo pila bat dabil. Belicetik Cancunerainoko kontrastea oso gogorra izan zen. Miseriatik Miamira pasatzea bezala izan zen. Belice karibe beltza da eta bertako bizilagunek ingelesez berba egiten dute. Bizi-maila nahiko pobrea da. 200.000 biztanle bizi dira baina kilometro askotan ez zen jenderik ikusten. Bestalde, hasierako 300 kilometrotan ez zegoen asfaltorik eta nahiko gogorra egin zitzaigun bertan bizikletan ibiltzea".*

Asierrek udan beste bidaia bat egin zuen bizikletan, Parisetik Copenhaguera. Oso gustokoa du bizikletan bidaiatzea. *"Bidaiatzeko modu merkea da eta gainera paisaiarekin askoz gehiago disfrutatzen duzu. Nahiko gogorra ere bai, bada. Orain hemen garela, oso esperientzia ona izan dela pentsatzen dugu baina momentu txarrak ere pasa ditugu. Hala ere, merezi du eta udan beste biajeren bat egiteko asmoa ere badaukat".* Laurik ere ez du aukera hori baztertzen.

Momentuz, egun batzutarako behintzat, bizikletak aparkatu egin dituzte. Helduko da berriz ere martxan jartzeko garaia, eta beste bidaiaren bat egiteko unea.

*lakoa ematen dute, merkea samar gainera. Ez genuen gehiegi jaten baina janaria nahiko ona izaten zen. Zerbait bazkaldu, bueltatxo bat eman eta berriz ere errepidera, horrela ibiltzen ginen. Azken egunetan, berriz, diru faltan ginen eta bokadiloak jaten genituen. Janari pikantea? Lehendabiziko eguneko nobatadarekin nahiko izerdi bota genuen, bai..."* esaten du Laurik. Ezagututako jendeari buruz hitz onak besterik ez dituzte biek; *"oso jende jatorrarekin topo egin genuen eta oso harrituta geratzen ziren hainbeste kilometro bizikletaz egin behar genituela esaten genienean, han ez dago horretarako ohiturarik eta. Errepidean ez genuen inor bizikleta gainean ikusten, baina herrietako jendeak oso harrera ona eskeintzen zigun, nongoak ote ginen, zelan joan ginen hara eta horrelakoak galdetuz".*

Mexikon bost estatu zeharkatu zituzten: Mexiko, Morelos, Puebla, Oaxaca eta Chiapas, 12 bat egunetan 1.500 kilometro eginez. Chiapasetik Guatemalara sartu ziren; Guatemalatik ferryaz Belicera igaro ziren eta, Belicetik, berriz ere Mexikora, Quintana Roo estatutik. Ikusitako lekuetatik, besteak beste, Oaxaca eta Chiapas (Mexikon) eta Guatemalan Atitlan lakua edo Pacaya bolkana goraipatzen dituzte. *"Mexikarrak nola bizi diren? Oso ondo gutxi batzuk eta oso gaizki besteak. Oaxacan eta Chiapasen industria gutxi dago, lurra landuaz bizi dira eta oso pobreak dira. Eta oso fededunak dira denak".*

Karibearekin liluraturik bueltatu dira Lauri eta Asier, nahiz eta beren ustez esplotatuegia egon; *"azken egunak Karibean buzeatzeko aprobetxatu genituen eta Cancun in-*





# Gaur egun, orain dela hamar urte baino hobeto ala okerrago bizi zara?



**Eugenio Zabala**

Orain hobeto, jubilatuta nago eta. Denbora libre gehiago daukat eta gauza gehiago egiteko aukera daukat, lasaiago bizi naiz. Gazteak igual okerrago biziko dira...



**Juan Moreton**

Nik uste dut zertxobait hobeto bizi garela, jendea egunean bizi da orain, ez du hainbeste aurrezten. Irabazi ere gehiago irabazten da nahiz eta lan gutxiago egon...



**Mari Angeles Alkorta**

Ni ezin naiz kexatu, igual orain hobeto bizi naiz, orduan umeak ere txikiagoak ziren eta... Orain, berriz, libreago edo sentitzen naiz.



**Mertxe Agirrezabal**

Hobeto, orain askoz ere trankilago bizi naiz, gustorago nago. Orain ere lanean lasaiago ibiltzen naiz eta igartzen dut.



**Rosarito Olañeta**

Hobeto, ez dut lehen moduan lanik egiten eta. Lehen jo ta ke aritzen nintzen umeak zaintzen eta orain berriz askoz ere lasaiago bizi naiz.



**Cipriano Martin**

Momentuan ni behintzat okerrago bizi naiz, lanik ez daukat eta. Jendea beharbada hobeto bizi da baina nire kasuan orain 10 urte ez neukan orain dudan kezka hori.

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA


Udaberri-udako moda zain daukazu
MARGA
jantzidenda
San Pedro, 20. Bergara. Tf. 76 05 37

Biko
BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra. Tl. 76 71 19

ZAPELAITZ
Taberna
Eguneko menuak astelehenetik ostiralera
San Lorentzo, 25 BERGARA

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan
Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29



## *Langileon eguna*

Maiatzaren Lehena, munduko langilearen eguna ospatzear gaudelarik, euskal beharginen egoeraz zenbait hausnarketa egiteko unea iritsi dela deritzot. Ikuspuntu ezberdinetatik, gainera. Alde batetik euskal sindikatuen elkarlanaren egoeraz eta, bestalde, gure herriko zenbait langileren egoeraz, hain zuzen ere.

ELA eta LABen arteko elkarlana ez da hautsi, Maiatzaren Lehena bakoitzak bere aldetik ospatu badu ere. Indarberritzeko behar den barauldian dagoela esan daiteke, gertatutako guztia dela medio, eta datozen hilabateetan ahul eta beldurti sortu zen elkarlanak bere balio estrategikoa erakutsiko du.

Bestalde eta gure ingurura begira, hor ditugu TAVEXeko langileak, euren etorkizunaren aldeko borrokan.

Gure herrian hain tradizio zahar eta garrantzitsua izan duen ehungintza bere azkenak ematen dihardulea dirudi. Etekin gehiago eta arrisku gutxiago izatearren Bergaratik kanpo joango direnaren beldur dira bertako langileak eta gara herritar guztiok.

Maiatzaren Lehenaren bezperan, euskal langileon arazoak hor daude. Aurrera doa euskal sindikalgintzaren elkarlana eta aurrera jo beharko du langileon borrokak.

**Martin GARITANO**



## *Aurrikusketak*

Etorkizunak kezkatzen gaitu, eta orain arte bizi izan diren pertsona guztiek ardura berbera izan dute. Gehien kezkatzen gaituena gure etorkizun pertsonala da, gure osasunaren egoera, gastoei aurre egiteko gai izatea, gure seme-alaben zoriontasuna..., eta buruhauste hauetatik batzuek etekin onak lortzen dituzte.

Aintzinaroan, batzuek hegaztien hegaldian edota airean botatako makilatxoen eroaldian etorkizuna ikusten zutela zioten. Era berean, gure sasoi teknolojikoan ere, badago zenbait pertsona etorkizuna igartzeko gai omen direnak, hori da behintzat aldarrikatzen dutena. Ahalamen bereziekin, planetaren mugimenduak aztertuz edo kristalezko bola bati begiratuz edota eskuetako marrak miatuz datozen egunetan gertatuko zaizkigun gauzak asma daitezkeela diote. Izan ere, igartzapenaren era guztiak sineskeri hutsak dira, inork ez bait ditu sekulan frogatu, praktika hauek etorkizuna igartzeko gai direnik, eta beraien helburu bakarra nortasun sineskorrak astoratzea da.

Bestalde, benetazko etorkizunaren aurrikusteak egin daitezke jakina, baina aurrikuste hauek oinarri zientifikoa dute, erraz frogatuaz.

Baina historian egin den aurrikusterik beldurgarriena eta nire ustez kaltegarriena Biblian aurki dezakegu. "Apokalipsis" deritzona (hitz jatorria Grekotik datorkigu eta bere itzulpena "aurkikuntza" da). Profetek, munduaren amaiera aldarrikatzen dute. Hondamendia nagusituko da nonbait eta bai lurra, bai zerua, errautsi egingo da. Bakarrik izaki talde txiki bat bizirik geldituko omen da eta hortik aurrera paradisoa. Izan ere, bizitzaren misteriorik handiena heriotza da, eta honen aurrean gizakiok ez dugu, ez lehen, ezta gaurregun ere, erantzun egokirik aurkitu.

Erlijio guztiak saiatu dira misterio hau argitzen, eta horretarako aintzinako profetak (gaurregun aztiak edo igarleak) etorkizunari erantzuna aurkitzen ahalegindu zirela uste dut.

**Eugenio ALLES**

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35

BEHEKO TABERNA
Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

POL-POL
Taberna
☎ 76 07 78



LAKET
gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkale, 29 BERGARA

## Ikastolakoen bazkaria







AITZIBER ARETXAGA

**Aranzadi Ikastolaren 25. urteurrena ospatzeko** antolatutako kultur hamabostaldiari amaiera emateko, domekan, eguerdiko mezaren ostean, **herri-bazkaria** izan zen Seminarioko kolumna patioan. Ikastolan ibilitako langile, guraso, irakasle eta ikasleen artean **220 lagun** inguru bildu ziren eta bazkariko mahaiburu ikastola sortu zen garaiko zuzendaritza batzordeko kideak izan ziren. Era berean, 25 urteotan ikastolan ibilitako hainbat ordezkarik erabakitakoari jarraituz, bazkalostean **Jose Amilibia, Fernando Etxeberria eta Iñaxio Arregi** omendu zituzten ikastolaren alde eginako lan bikainagatik. Hirurek eskultura bana jaso zuten oroigarri modura. Ondorengo dantzaldian ere giroa primerakoa izan zen. Bestalde, ikastolaren historia biltzen duen liburua salgai dago ikastolan 1.500 pezetaren truke.



## 1963an jaiotakoak

1963an jaiotako bergararrek **bazkaria** egin zuten joan zen zapatuan Antxoni jatetxean. Hirugarren urtez jarraian, aurten **34 urte betetzen dituzten bergararrak** lagunartean egun eder bat igarotzeko asmoz bildu ziren. Bildutako **38 lagunak** Antxonin primeran bazkaldu, bazkalostean solasaldi luzea egin eta jarraian goizalderarte juergan ibili ziren. Datorren urtean ere Pazkuak baino bi astebukaera lehenago biltzekotan geratu ziren. Bien bitartean, ondo segi eta eutsi umoreari!!

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

Deco-Textil
ZANGITU
Etxerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.
Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69



## ■ Pazkuetako irudia

**Dani Laskurain** margolari bergararrak egindako koadro hau izango da aurtengo Pazkuak igarriko dituena. Aurten, aurreneko aldiz, Udalak Beart herriko artisten elkarteari enkargatu zion jai egitarauaren azalean joango den margoa egitea eta Dani Laskurain izan zen aukeratutako pintorea. Danik, kolore biziez landu du koadroa, bertan, zezenak, dantzariak, koadrila bat edo etxaflero jaurtitzailearen siluetak ikusten direlarik. Aurtengo Pazkuetako jai egitaraua datorren astebukaeran hasiko da banatzen etxez etxe. Guztira, 5.500 ale argitaratuko dira.

## ■ 87 urtekoei omenaldia





**Aurten 87 urte betetzen dituzten bergararrak** omendu zituzten domekan **Jubilatuen Egoitzan.** Bertan, besteak beste, **Maria Jesus Aranburu** Gizarte Ekintzako Oinarrizko Zerbitzuetako zuzendaria, **Victoriano Gallastegi** alkatea, **Koldo Pereira** eta **Alvaro Esparza** zinegotziak eta **San Joxepe elkarteko zuzendaritzakoak** izan ziren. Omendatukoak 37 izan ziren aurten, Jubilatuetara 20 besterik hurbildu ez ziren arren. Xamatzeko dantzariak eta Jubilatuetako abesbatzaren emanaldien ondoren, guztiek opari bana jaso zuten. Jubilatuetara joaterik izan ez zutenek egunotan jasoko dituzte opariak euren etxeetan. Jende asko bildu zen Jubilatuetan eta ekitaldiaren ondoren luntxa banatu zen.

## Zertan *dihardute* ba?



**Maripi Laskurain** 32 urteko antzuolarra izango da Antzuolako Idolaz euskara elkarteko presidente berria, Jone Legorburu ordezkatuz. Maripirekin batera, beste 8 lagun ere badabiltza zuzendaritzan, tartean, Miren Amasorrain (presidenteordea), Marijo Deogracias (idazkaria) eta Nekane Arratibel (diruzaina). Idolaz elkartea 93an eratu zen. 150 bazkide inguru ditu eta, besteak beste, hauek prestatzen dabiltza: Berrigaran sartzeko Antzuolako gehigarria, Antzuolako euskaran idazteko ikastaroa edota urteroko bertso paperen sariketa.


igor eta Txomin
*Pintura orokorrean.*
*Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.*
*Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.*
ANTZUOLA ☎ 76 60 39
BERGARA ☎ 76 19 98

ZUBIETA
*elektragintza*
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, ateak, manparak...
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

# Mikel Zubizarreta

**Mikel Zubizarreta Kirol Zerbitzuko mantenimendu arduraduna dugu. Lehen Labegaraietako Kiroldegian egoten bazen ere, duela hiru urtetik igerilekuetan ari da lanean. Laister kanpoko pizinak txukuntzeko lanetan hasiko dira. Datorren martitzenean 38 urte beteko ditu Mikelek.**



*"Dutxa nahiago dut bainua baino eta hondartza pizina baino. Motorreko kirolak ditut gustokoen. Umoretsu esnatu ohi naiz eta bestela ere gauza askorekin egiten dut barre"*

**- Igerilekuak, barrukoak ala kanpokoak?**
- Barrukoak, jende gutxiago dator eta.
**- Uda ala negua?**
- Lanerako negua, bestela uda.
**- Ur beroa ala freskoa?**
- Freskoa ardoa...
**- Zenbat gradutan egoten da pizinetako ura?**
- Barruan, 26-27 ºC bitartean.
**- Baina gorabeherak izaten ditu...**
- Ez, gertatzen dena da gradu bat asko nabaritzen dela.
**- Dutxa ala bainua?**
- Dutxa nahiago.
**- Pizinak ala hondartza?**
- Hondartza.
**- Eguzkitan egotea gustatzen zaizu?**
- Eguzkiaren onena keizpea...
**- Bainujantzi luzea ala motza?**
- Luzea, motzarekin *pinta* ona edukiko nuen.
**- Eta emakumeak, bikinian ala bainujantzian?**
- Bainujantzian.
**- Puntuatu pizinak (0-10).**
- Barrukoei 6 bat, kanpokoei 7 bat.
**- Zertan hobetu daitezke?**
- Barrukoak goitik behera konpondu behar dira.
**- Zeuk igerian egiten duzu?**
- Ez nago horretarako hemen...
**- Kirolik gustokoena?**
- Motorrekoak.
**- Realak asmatu du entrenadore berriarekin?**
- Ikusi behar...
**- Umore onez esnatzen zara?**
- Bai.
**- Astebukaerarako plan on bat?**
- Gorlako soziedadera joatea.
**- Sukaldari ona zara?**
- Sukaldaria baino jatekoa gehiago...
**- Meriendarik egiten duzu?**
- Bai, bokadilo bat.
**- Zerekin egiten duzu barre?**
- Gauza askorekin, parre asko egiten dut.
**- Negar egin duzun azken aldia?**
- Nire osaba hil zenean.
**- Zertan zara traketsa?**
- Plantxa egiteko.
**- Bibotea, noiztik?**
- Soldaduzkatik, 80tik.
**- Eta zergatik kenduko zenuke?**
- Alabak eskatu ezkero.
**- Alabari egindako azken oparia?**
- Euskaraokearen zinta.
**- Miresten duzun pertsona bat?**
- Nire aita.


KONDE



PANADEROKUA

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

ARREGUI, E.M.

AROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
- ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

IKUSBI

ALKANDORAK, JERTSEAK, BAKEROAK ETA OSAGARRIAK

Irala, 5 ☎ 76 53 09

iletxo

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktorea, 7 BERGARA
☎ 76 53 15

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34

## ETXEBIZITZA

**Antzuolan** pisua eta garajea salgai. ☎ 76 62 15.

**Berrizteko** dauden bi duplex salgai Bidekurutzetan. ☎ 76 57 36.

**Garajea** salgai Bolun. ☎ 76 54 98.

**Etxebizitza** salgai Artzamendin. ☎ 72 08 98 (gauez).

**Pisua** salgai Donostian, Amaran. ☎ 76 31 79.

**Gela** bat konpartituko nuke. ☎ 76 91 33 (Iraide).

**Atiko** amueblatua salgai. ☎ 76 47 27.

**Pisua** alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 57 55.

**Duplex** txukuna alokairuan Zarautzen, udan. Hondartzatik gertu. ☎ 83 56 36.

**Pisua** alokairuan Santo Domingo de la Calzadan, udan. ☎ 76 13 12.

**Pisua** salgai herri-erdian. ☎ 76 25 31.

**Pisua** salgai Aranerrekan. ☎ 76 42 65 (gauez).

**Pisua** salgai Barrenkalen. ☎ 76 41 38.

**Garajea** alokatzen da Ibargarain. ☎ 76 16 38.

**Pisua** salgai Mugertzan. ☎ 76 53 79.

**Pisua** salgai Zarautzen. ☎ 76 53 69/13 34 67.

## DENETARIK

**Ordenagailua** eta inpresora salgai. ☎ 36 03 89.

**Pekines** txakurkumak salgai. ☎ 79 83 50 (Karmen).

**Setter** txakurra (txuri-beltza) galdu da Arrurriaga inguruan. ☎ 76 57 36.

**Kontsola** bat salgai, bi mando eta 100 jokuko kartutxoarekin. ☎ 76 38 71.

**Canon** argazki kamarako hiru objetibo eta bi gorputz salgai. ☎ 76 39 96.

**Mendi** bizikletako John Luyck zapatilak salgai. 38 zenbakia. ☎ 76 31 34.

**Fagor** berogailua (20 litro) eta Sony bideo kamara salgai. ☎ 76 24 02.

**Derby FDS** motorra salgai. ☎ 76 49 30 (Igor).

**Citroen Visa** kotxea salgai. ☎ 76 05 37.

**Roller-Aloha** karabana salgai. ☎ 76 39 96.

**Motorreko** kaskoa salgai. ☎ 76 17 49 (gauez).

**Flanders** mendiko bizikleta salgai. ☎ 76 47 94.

**Renault 5** kotxea (SS-O) salgai. ☎ 76 10 91 (gauez).

**Renault 11** kotxea (SS-AC) eta Vespa 200 (VI-I) motorra salgai. ☎ 76 08 51.

**Pultsometro** bat erosiko nuke. ☎ 76 39 36 (Peru).

## LANA

**Mate,** fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 70 40.

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Lanak** ordenadorez pasatzen ditut. ☎ 76 27 59 (Inma).

**Klinika** auxiliar batek gaisoak edo helduak zainduko lituzke. ☎ 76 64 47.

**Mate,** fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 44 34.

**Garbiketa** lanak egingo nituzke. ☎ 76 71 21.

**Garbitzaile** bat behar da. ☎ 76 41 06.

**OHO** klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

**Mate**, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 24 31.

**Haurrak** zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 70 90.

**Batxilergo** teknologikoko (lehen maila) elektronika irakaslea behar da. ☎ 76 39 15.

**Irlandar** batek ingeles klaseak gaztelerazkoekin elkartrukatuko lituzke. ☎ 907898339 (Catherine).

**Andrea** eskeintzen da sukaldari, garbiketa edo umezain lanetarako. ☎ 76 70 85.

**Enpresaritzan** diplomatuak OHOko klaseak ematen ditu. ☎ 76 47 67 (Nere).

**Etxeko** lanak egin edo haurrak zainduko nituzke. Esperientzia. ☎ 76 70 15 (8etatik aurrera).


CAMINO MUGERZA
*Erakusketa*



NAHIKARI taberna
Masterreka, 20 Tl. 76 57 71

Maxim's
☎ 76 20 61

PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

Maiatzaren 6a Amaren Eguna



...eskertuko dizu.
Gracian
USAINDEGIA-MERTZERIA
Bidekurutzeta, 6 Tfnoa: 76 10 25

ECUADOR BIDAIAK

# Bergarako jaiak 97

# SALOU

## Maiatzaren 16tik 20ra

H. Molinos Park *** .......................... 13.915 PTA
Aparthotel Voramar (Cambrills).......... 15.500 PTA
Hotel Jaime I *** .............................. 17.100 PTA
Hotel Belvedere *** ........................... 17.100 PTA
Hotel Port Eugeni *** (Cambrills)....... 18.125 PTA
Hotel Cap Salou *** ........................... 18.800 PTA
Hotel Mediterraneo *** ...................... 19.715 PTA
Aparthotel Michelangelo.................... 21.700 PTA
Hotel Estival Park **** ...................... 23.700 PTA

Autobusa eta pentsio osoa prezioan sartuta daude.

Kontsulta itzazu beste hotel batzuetako egonaldien prezioak eta...

**Umeentzako eta hirugarren eta laugarren lagunentzako deskontuak!**

**Informazioa eta erreserbak Ecuador Bidaiak-en.**

~

Tf. 76 44 45-76 15 33
Arruriaga, 10 BERGARA

# Labegaraietako FUTBITO Txapelketa

| 1 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. A Ze Flaxa Etxagi | 53 | 20 | 100 | 35 |
| 2. Errotagain | 46 | 20 | 86 | 51 |
| 3. Jauja OH Zerezos | 42 | 21 | 95 | 54 |
| 4. Bar Canalejas | 38 | 20 | 70 | 57 |
| 5. Bildurbarek Opel/Lam | 26 | 21 | 84 | 82 |
| 6. Azpeitxi Jatetxea | 26 | 20 | 64 | 62 |
| 7. Madura Industrias Goi | 23 | 20 | 55 | 81 |
| 8. Ogizun | 22 | 20 | 59 | 86 |
| 9. Ortzi | 21 | 20 | 44 | 64 |
| 10. Arloteak/Oilagorra | 21 | 21 | 68 | 50 |
| 11. Pagomendi | 21 | 21 | 51 | 70 |
| 12. Mongatxurra | 18 | 20 | 52 | 77 |
| 13. Ufala | 12 | 20 | 43 | 65 |

| 2 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Etxagi | 39 | 19 | 78 | 58 |
| 2. Artusamak Bergatrans | 33 | 20 | 75 | 56 |
| 3. Agiñaspi | 33 | 21 | 63 | 62 |
| 4. Kayak Os Jardineiros | 32 | 20 | 81 | 62 |
| 5. La Juve | 30 | 20 | 71 | 61 |
| 6. Haltzari | 29 | 20 | 56 | 50 |
| 7. Ezinleike | 28 | 21 | 67 | 77 |
| 8. Soropotroak | 25 | 19 | 46 | 46 |
| 9. Agirrebeña Jatetxea | 24 | 18 | 59 | 56 |
| 10. Eri | 23 | 19 | 56 | 77 |
| 11. Indargorri | 20 | 20 | 47 | 98 |
| 12. Autoberezi | 19 | 20 | 72 | 95 |
| 13. Uve Bikoitza Jam | 0 | 0 | 0 | 0 |

| 3 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Guadalest | 51 | 21 | 88 | 36 |
| 2. FAC | 47 | 21 | 93 | 45 |
| 3. Nekrofilikos | 39 | 21 | 88 | 77 |
| 4. Jakina Patxaran Team | 36 | 22 | 88 | 67 |
| 5. PJS | 35 | 21 | 79 | 60 |
| 6. Txipiron | 32 | 20 | 67 | 52 |
| 7. Nahikari Hooligans | 30 | 23 | 72 | 66 |
| 8. Moskis | 28 | 22 | 70 | 47 |
| 9. Igandekoak | 21 | 20 | 43 | 71 |
| 10. MRW | 20 | 21 | 67 | 81 |
| 11. Ganbara | 19 | 22 | 70 | 86 |
| 12. EH Biterrak | 16 | 20 | 43 | 69 |
| 13. Construcciones Bergara | 11 | 20 | 42 | 104 |

| 4 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Manitou | 60 | 20 | 164 | 27 |
| 2. Arbe Kirolak | 56 | 23 | 135 | 49 |
| 3. Etengabe | 38 | 20 | 60 | 47 |
| 4. SLO | 37 | 21 | 81 | 46 |
| 5. Matxakategi | 33 | 20 | 77 | 45 |
| 6. Xurrupak | 27 | 20 | 42 | 77 |
| 7. Komando Piperrak | 25 | 21 | 66 | 96 |
| 8. Pata Negra | 24 | 21 | 45 | 72 |
| 9. Panoramix | 23 | 21 | 71 | 140 |
| 10. Amilotx | 19 | 21 | 44 | 73 |
| 11. Polideportivo Taberna | 16 | 20 | 46 | 106 |
| 12. Aldoka Maldoka | 10 | 21 | 47 | 78 |
| 13. Osintxu | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 14. Pittixak | 0 | 0 | 0 | 0 |

## *Jokoz* kanpo



**Jon Rodriguez**

***Autoberezi***

**Zer moduz txapelketa?**
Nahiko gaizki gabiltza. Zuzenean jeitsi edo promozionatu egingo dugu ziurrenik.

**Zure taldearen gauzarik onena?**
Nahiko giro ona daukagula taldean eta txarrena ez daukagula aldaketak egiteko nahikoa jokalari, gutxi gaude taldean.

**Kanporatu zaituzte inoiz?**
Bai, behin, baloia eskuarekin jotzeagatik.

**Partiduak goizez ala arratsaldez?**
Arratsaldez.

**Txapelketako talderik onena?**
Jauja OH Zerezos.

**Jokalaririk onena?**
Juan Luis Etxaniz.

**Sartu duzuen goleadarik handiena?**
23 eta 1 Eri taldeari.

**Eta jasotakoa?**
18 eta 2 Artusamakek

**Ze postutan amaitzea espero duzue?**
Jeitsiera zuzeneko postuetatik alde egitea espero dut. Ahaleginak egingo ditugu, baina zaila ikusten dut, aurten kaskar gabiltza eta.

**Liga profesionaleko jokalaririk onena?**
Raul.

**Munduko kirolaririk onena?**
Pete Sampras

**Euskal Herrikoa?**
Iñurrategi anaiak.

**Jateko plater bat?**
Angulak.

## ■ EMAITZAK

| | |
|---|---|
| FAC-MRW | 2-0 |
| Patxaran Team-PJS | 5-4 |
| Ogizun-Jauja OH Zerezos | 3-8 |
| Amilotx-Pata Negra | 2-3 |
| Nekrofilikos-Moskis | 10-4 |
| Panoramix-SLO | 4-2 |
| Bildurbarek Opel/Lam-Pagomendi | 2-4 |
| Arloteak/Oilagorra-Mongatxurra | 2-2 |
| Ganbara-EH Biterrak | 5-0 |
| Arbe Kirolak-Komando Piperrak | 6-2 |
| Txipiron-Nekrofilikos | 5-6 |
| Ganbara-MRW | 2-4 |
| Panoramix-Manitou | 1-14 |
| Arbe Kirolak-Etengabe | 6-1 |
| Polideportivo Taberna-Xurrupak | 3-2 |
| Matxakategi-Aldoka Maldoka | 5-5 |
| Igandekoak-Nahikari Hooligans | 3-0 |
| FAC-Moskis | 1-1 |
| Ufala-Pagomendi | 2-2 |
| Ogizun-Mongatxurra | 1-3 |

## ■ PARTIDUAK

**Eguenean kanpoan**

**09:00:** Polideportivo Taberna-Manitou • **Amilotx**
**10:00:** Amilotx-Xurrupak • **Jauja OH Zerezos**
**11:00:** Pagomendi-Jauja OH Zerezos • **Xurrupak**
**12:00:** Matxakategi-Etengabe • **Pata Negra**
**13:00:** Pata Negra-Aldoka Maldoka • **Etengabe**
**16:00:** Etxagi-Artusamak • **La Juve**
**17:00:** Kayak Os Jardineiros-La Juve • **Agirrebeña**
**18:00:** Indargorri-Agirebeña Jatetxea • **Kayak OJ**

**Zapatuan barruan**

**09:00:** Amilotx-Manitou • **Polideportivo Taberna**
**10:00:** Polideportivo Taberna-Matxakategi • **Pata Negra**
**11:00:** Pata Negra-Etengabe • **Matxakategi**
**16:00:** Nekrofilikos-EH Biterrak • **Moskis**
**17:00:** Moskis-Guadalest • **MRW**
**18:00:** PJS-MRW • **Guadalest**

**Domekan barruan**

**09:00:** Indargorri-Autoberezi • **Polideportivo Taberna**
**10:00:** Ufala-Bar Canalejas • **Etxagi**
**11:00:** Etxagi-La Juve • **Bar Canalejas**
**12:00:** Artusamak-Eri • **Ezinleike**
**13:00:** Ezinleike-Kayak Os Jardineiros • **Eri**
**16:00:** Haltzari-Agirrebeña Jatetxea • **Errotagain**
**17:00:** Errotagain-Azpeitxi Jatetxea • **Arloteak**
**18:00:** Ogizun-Arloteak/Oilagorra • **Mongatxurra**
**19:00:** Ortzi-Mongatxurra • **Bildurbarek Opel/Lam**
**20:00:** Bildurbarek-A Ze Flaxa Etxagi • **Ortzi**

## ■ NESKEN III. FUTBITO TXAPELKETA

**Eguenean**

**11:00:** Power Rangers-Potzu Ta Zapaburuak
**12:00:** Gu Geu-LTB
**13:00:** Burdinezko Damak-The Hurricanes

**Zapatuan**

**15:00:** Potzu Ta Zapaburuak-PWA
**15:00:** Burdinezko Damak-Gu Geu
**16:00:** Nahikari-LTB
**16:00:** The Hurricanes-Blue Star

## TXINPARTAK

### Saskibaloi taldea txapeldun

BKEko senior mailako taldea txapeldun geratu da Gipuzkoako ligan. Joan zen astebukaeran jokatu zuten azkenengo partidua Atletico San Sebastian taldearen aurka eta galdu arren Ramon Conderen mutilek lehen postuari eutsi diote.

### Ipintzako futbol txapelketa

Ipintzako futbol txapelketa maiatzaren 27an hasiko da. Izena emateko epea zabalik dago eta taldearen izena, kamisetaren kolorea, eta jokalarien zerrenda sobre batean sartu eta BKEren bulegoan laga beharko da. Izena emandako taldeekin maiatzaren 23an arratsaldeko 7etan bilera izango da Ipintzan eta hor talde bakoitzeko 10.000 PTA ordainduko dira.

# Nesken eskubaloi talde nagusi berria BKEk




Datorren urterako esponsor bila dabiltza.

**BKEko** eskubaloi saileko emakumezkoen senior mailako lehenengo taldeak dagoeneko bi partidu jokatu ditu Gipuzkoako koparen txapelketaren barruan. Bi partiduak galdu egin dituzte, baina emaitzak garrantzitsuak diren arren, datorren denboraldirako ari dira prestatzen.

Taldearen entrenatzaileak Saioa Berraondo eta Edu Orgaz dira eta 19 urtetik 23 urtera bitarteko jokalariez osatuta dago. *"Orain arte 19 urterekin emakumezko eskubaloilari-jokalariek kirola laga egin behar izaten zuten. Hemendik aurrera hori ez gertatzea espero dugu. Jokalariak gogo handiarekin hasi dira eta datorren urtean 2. maila nazionalean jokatuko dugu"* adierazi digu Orgazek.

Taldean 12 jokalari daude eta datorren urterako 18 jokalariz osatutako taldea izan nahi dute. Bergaran kopuru hori osatzeko jokalaririk ez balego Zumarraga eta Urretxuko jokalariak gurekin jokatzeko prest ei daude. *"Jokalari asko kanpoan ari dira ikasten eta orduan zenbat eta gehiago izan hobeto"* esan digu Orgazek.

Lehenengo bi partiduetan jipoi ederrak jaso dituzte eta oraindik fisikoki eta taktikoki maila hartzea falta zaie. Halere datorren urterako talde polita izango dela uste du Orgazek. *"Jokalari guztiak BKEn jokatutakoak dira eta maila ona daukate. Martxa hartzen badiote joku ona eskeiniko dugula uste dut".* Maila derrigorrez hartu beharko dute, izan ere 2. maila nazionalean arituko dira eta Euskalerri osoko taldeekin neurtu beharko dituzte indarrak. Talde berriarentzako laguntza guztiak gutxi izango dira eta orain sortuko dituen gastuei aurre egiteko esponsor baten bila dabil.



## Gimnasia erritmikoa eguenean

Bihar arratsaldeko 5:30etan Gipuzkoako gimnasia erritmikoko txapelketa jokatuko da Labegaraietako kiroldegian. Txapelketa taldekakoa eta banakakoa izango da eta Ariznoa gimnasia erritmikoko taldearekin batera, Donostia eta Eibarreko taldeak izango dira lehian. Ariznoaren jubenil mailako taldea Amaia Ortiz de Urbina eta Nerea Mendizabalek osatuko dute. Junior mailan, berriz, Amaia Torre eta Jaione Igartuak talde bat osatuko dute eta Alba Maestre, Azahara Gonzalez eta Aintzane Narvaezek beste bat. Txapelketa taldeka izan arren, gimnastek banaka lehiatuko dute eta maila bakoitzeko onenak Euskadiko txapelketarako sailkatuko dira.

## KARTELDEGIA

**FUTBOLA**

♦ **Bergara-Alevines Vascos**
Infantilak.
Eguena. 10:00. Ipintza.

♦ **Bergara-Landetxa**
2. mailako erregionala.
Eguena. 11:30. Ipintza.

♦ **Bergara-Mundarro**
Preferente maila.
Eguena. 17:00. Ipintza.

**ESKUBALOIA**

♦ **Bergara-Arrate**
Kadete mutilak.
Eguena. 09:30. Kiroldegia.

♦ **Bergara-Urnietako**
Senior neskak.
Eguena. 10:45. Kiroldegia.

♦ **Bergara-Arrate**
Jubenil mutilak.
Eguakitza. 19:45. Kiroldegia.

♦ **Bergara-Almen Txiki**
Kadete mutilak.
Zapatua. 16:00. Kiroldegia.

♦ **Bergara-Urola**
Kadete neskak.
Zapatua. 17:30. Kiroldegia.

♦ **Bergara-Ereintza**
Senior neskak.
Zapatua. 19:00. Kiroldegia.

**SASKIBALOIA**

♦ **Bergara-Zarautz**
Kadete neskak.
Zapatua. 12:15.
Mariaren Lagundia.

♦ **Bergara-Etxadi**
Senior neskak.
Zapatua. 16:00.
Mariaren Lagundia.

# Iker Markiegi

## Lokatzako txirrindularia

**Iker Markiegi Lokatza taldeko jubenil mailako txirrindulariak sasoitsu hasi du denboraldia. Izan ere, aurrealdean bukatu ditu korritu dituen lasterketa gehienak eta urrian Donostian jokatuko diren mundialetara joateko esperantza du.**

**- Zela hasi zinen txirrindularitzan?**

- Anaia aurretik zebilen eta berari ikusita hasi nintzen duela 5 urte.

**- Orain arte zer moduz zabiltza?**

- Aurtengo denboraldian inoiz baino hobeto nabil. 7 lasterketa korritu ditut eta ia denetan 15 onenen artean sartu naiz. Errenteriako lasterketan oso ondo ibili nintzen eta 7. bukatu nuen.

**- Zenbat kilometroko lasterketak izaten dituzue?**

- Normalean 70 km.koak dira eta 200 txirrindulari inguru irtetzen gara. Oso zaila da postu onak egitea eta konpetentzia handia dago. Jubenilak izan arren, txirrindulari batzuk bizikletara dedikatzen dira bakarrik eta prestakuntza oso ona daukate.

**- Ze helburu dituzu aurtengo denboraldirako?**

- Urrira arte lasterketa asko geratzen zaizkit. Erdialdean atsedena hartuko dut eta gero urrian Donostian jokatuko den Munduko txapelketarako sailkatzeko esperantza daukat.

**- Astean zenbat kilometro egiten dituzu?**

- Egunero 70 km inguru egiten ditut eta horri lasterketetako kilometroak gehitu behar zaizkio. Oso kirol gogorra da ordu asko sartu behar baitira. Halere, postu onak egiteak asko motibatzen du.

**- Zer falta zaizu lasterketa bat irabazteko?**

- Azkenengo momentuan pixka bat hobetzea. Lasterketa gehienetan taldetxo bat heltzen da eta talde onenek egiten duten kontrolarekin oso zaila da irabaztea.

**- Entrenatzeaz gain, medikuen laguntza jasotzen duzu?**

- Bai, Lokatza taldekoak Gasteizera joaten gara kontrol medikoak egitera eta hori oso garrantzitsua da ondo ibiltzeko.

**- Zein da gehien gustatzen zaizun bizikleta marka?**

- Gaur egun marka asko daude; baina bat aukeratzekotan Look bizikleta aukeratuko nuke.

**- Errepideetan arazorik izaten duzue?**

- Bai, kamiolari askok ez gaituzte errespetatzen eta oso gertutik pasatzen dira. Bide bazterrak oso zikin daude eta errubrendako arriskutsuak dira. Kontu haundiz ibili behar dugu.




"Egunero 70 kilometro egiten ditut".

## "Mediku azterketak oso garrantzitsuak dira ondo ibiltzeko"



*Argazkia: Aranzadi Ikastola*

# *Eskolarteko futbol txapelketa, 1975*

Oraindik ere askok eta askok gogoan izango dituzte Seminarioan jokatzen ziren futbol partiduak. Garai batean Seminarioa ez zegoen oraingo moduan asfaltuta eta futbolariek arerioen kontra eta, egun euritsuetan behinik behin, futbol zelaian sortzen zen lokatzaren kontra ere borrokatu behar izaten zuten.

Argazkiko taldea Aranzadi Ikastolako talde batekoa da eta erretratua 1975 urtearen inguruan aterata dago. Argazkikoek 12 bat urte izango zituzten orduan eta, partiduaren atarian, ohizko argazkia atera zieten. Entrenadorearen aginduak jaso ondoren, gazteak garaipena eskuratzeko irrikan genituen. Hori bai hamaikako beldurgarria...

Hauek dituzue talde hartako futbolariak:

**Goian:** Jabi Urbistondo, Iñaki Arana, Josu Akizu, Jose Mari Berasategi, Josean Iza eta Jon Garagorri.

**Makurtuta:** Jose Ramon Lasa, Josumi Aspiazu, Imanol Mujika, Luis Miguel Sarobe eta Iñaki Agirrezabal.

Industria hornikuntzak
U UNIFE
Industriaren alde
MEMESA S.L.
Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21
Zumelaga
JATETXEA
ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!




**Jabe berriak**

**Zatoz ostiralean, maiatzak 2, arratsaldeko 6ak eta 8ak bitartean egingo den inaugurazioral!**

*Erretegia • Eguneko menua • Plater konbinatuak*

San Anton auzoa BERGARA
Tf. 76 41 06




# egizabal

## Oinetakoak
### eta poltsak

Betikoak!
Lau belaunaldiren bermea dugu.

Ferrerias, 9 • ARRASATE
79 66 01

Bidekurutzeta, 13 • BERGARA
76 12 28

institutos

# Miguel ALTUNA - IPINTZA

institutuak

## 1997-98 ikasturtea
## HEZKUNTZ ESKAINTZA

**DBH**

**1go ZIKLOA**
1. Maila (12 - 13 urtekoentzat)
2. Maila (13 - 14 urtekoentzat)

**2. ZIKLOA**
**3. Maila (14 - 15 urtekoentzat)**
*Ikastetxe guztietan lehenengo aldiz ezartzen dena aurreko BBB 1 eta IEE 1en ordez.*

**BBB. 2. ETA IEE. 2. KURTSOAK**

**ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK**
Administrazio kudeaketa
Mekanizazioa
Ekipo eta instalazio elektroteknikoak (*)
*(*) Eskatutako Zikloa.*

**Bi urteko esperientziaz H.S.A.O.L. BATXILERGOAK (*)**
Teknologikoa
Giza eta Gizarte Zientziak
Natur eta Osasun Zientziak
*(*) Aurten ikastetxe guztietan derrigorrez ezarriko direnak.*

**GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK**
Administrazio eta Finantzak
Proiektu mekanikoen garapena
Erregulazio eta Kontrol sistema automatikoak

**AURREMATRIKULA EPEA :**
**Maiatzaren 5**etik **16**ra (biak barne)
Bi institutuetan goizeko
9etatik 14etara

**HELBIDEAK :**
**— MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA —**
Ibargarai, 1 - Tfnoak: 76 24 91 / 76 38 40
**— IPINTZA INSTITUTUA —**
Boni Laskurain, 19 - Tfnoak: 76 31 42 - 43

Informazio zabala eta zehatzagoa nahi izanez gero ETOR ZAITEZTE gure **BILERA INFORMATIBO-ra**

**Noiz :** Maiatzaren 13an, arratsaldeko 7etan

**Non :** Miguel Altuna-ko Aretoan Ibargarai, 1